


ISMAEL IGLESIAS ETXE-BIDE

2023.03.30 – 07.02

Rekalde Aretoak **ISMAEL IGLESIASEN** (Durango, 1974) filmekin osatutako ikus-entzunezko instalazioa aurkezten du. *Etxe-bide* instalazioan, artistak sakon aztertzen du pantailaren ideia, *stargate*, atari, ate edo leiho gisa hartuta, eta aukera eskaintzen dio ikusleari erreala den horretatik ihes egiteko, mugimenduan dagoen irudiaren bidez.

“Irudiaren bidez, ahalegina egiten dut autonomia propioa transmititzen, gainazal bolumetriko konplexuak eta ebokazio ugarikoak sortuz, klasikoa eta futurista, zibernetikoa eta teatrala uztartuta”.



Erakusketak planteamendu ebolutiboa du, eraldatzeari irekia, *work in progress*ak dituen aukerak eta espazioan murgiltzean sortuko diren irakurketa desberdinak aztertzen jarraitzeko, erakusketaren kontzeptu klasikoa zalantzan jartzen saiatuz. Rekalde Aretoan ikusgai dauden filmak bere sorkuntzaren barruan bikaintasuna iradokitzeko gaitasuna duten baliabide bisualen bilaketaren emaitza dira. Gaur egun dugun kontzentrazio-eraz jabeturik, artistak apustua egiten du bisitariaren begirada anitza limurtu nahi duen aurkezpen baten alde. Filmak elkarren artean erlazionatuta daude eta gonbit egiten diote ikusleari bere interpretazioa sor dezan.

“Nire filmetan, izu psikologikoa sortzeko gaitasuna ikertzen dut, soinuaren testuingurutik atereaz, ikuspegiaren anbiguotasunaren bidez eta gidoiaren ulertezintasunaren bidez, indarrean dagoen arauaz kanpoko ikuspuntutik”.

Feedback edo sistema baten atzeraelikadura kontzeptuak definitzen du sektore baten itzulera edo sistema horren irteeraren zati batena. Alegia, sistemara berriz sartzea da, batzuetan sistema bera hein batean zuzentzen duten datuekin eta beste batzuetan hondatzen duten datuekin.

Gailu mugikorrek eta pantailaekin marrazteko aukera aurkitzean, Ismael Iglesiasen produkzio bisual berri bati ekin dio, eta haren estetika eraldatuz doa, mugikorraren bideo-kameraren beraren interfazetik animazio bati gehiago dagozkion lengoaietara iritsi arte.

Bere lanak eraginkortasun bisual handikoak dira, eta egungo baliabide teknologikoetan egindako etengabeko bilaketaren emaitza dira, irudia artikulatzeko abiadura ulertu eta onartu nahian. Funtsezkoa denaren bilaketa ere bada, fase desberdinetako oroitzenaren. Horretarako, partzelazio sistematikoaz baliatzen da, eta abangoardia piktoriko tradizionalaren lorpenak ordenagailuko pantailen luminiszentzia opakarekin uztartzen ditu.

Tradizioari garaikidetasunetik heltzean, eta alderantziz, zirkulu bisual eta kontzeptual batean, izaera fotografikoko irregulartasunaren kartografiak sortzen dira, halako abstrakzio hiperrealista batean –errealismoa baino gauza irrealagorik ez dago–. Horiek errealitatearen errepresentazioari eta ezagutzari buruzko galdera filosofikoari erantzuten diote, kamera geldoaren poetika, *feedbacka*, sampleatze zinematografikoa eta errutinako bizitza teknologikoko ohiko interfazeak, ibilbidea, bidaia, helburu gisa egindako mugimendua abiaburu hartuta.

ERAMATEN UZTEA aholku ona da ikus-entzunezko eszenografia hau bisitatzeko.

ISMAEL IGLESIAS

ismaiglesias.com

ISMAEL IGLESIAS (Durango, 1974) Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUan (1998), pintura eta ikus-entzunezkoen espezialitateetan. Diziplina askotako artista da eta obra plurala sortu du, berezko estiloaz. Bere proposamenak bide erdian daude, pinturaren eta instalazioaren artean. Taldeko eta banakako erakusketa askotan egon dira ikusgai: Bilbo, Bartzelona, Basilea, Beijing, L.A., Londres, Madril eta Tijuana.

Espacio Abisal (Bilbo) proiektuan parte hartu zuen, eta toki hauetan izan da egoiliarra: BilbaoArte Fundazioa (2002, 2004 eta 2013), Parisko Espainiako Elkargoa (2007), Londresko Delfina Foundation (2008), CCA Andratx, Mallorca (2011) eta MA Studio Beijing, Txina (2012), Tjinchina, Tijuana, Mexiko (2014), Arropaineko Arragua, Lekeitio, Bizkaia (2016) eta GlogauAIR Berlin (2018).

Hainbat sari jaso ditu eta bere lana hainbat instituzioren da: Durangoko Arte eta Historia Museoa, Bilboko Arte Ederretako Museoa, BilbaoArte Fundazioa, IVAM (Valentzia), Caja Madrid, Caja Rioja, Ibercaja, Carsarte, UNED, CCA Andratx (Mallorca), Alacant Probintziako Aldundia, Parisko Espainiako Elkargoa eta Valdepeñas Ardoaren Kontseilu Arautzailea. Era berean, bilduma hauetan dago, besteak beste: Iberdrola, Benetton, Fame, Focus Abengoa, Honda, Green Powers, L’Oreal, McKinsey & Company, Mercagentes (Bilbao), Repsol eta Talens.

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



Bizkaia
rekalde aretoa